

Eneko Olasagasti

ZINEGILEA

Udako ekaitz baten faseak edo

G

uk pelikula bat egin nahi genuen. Eta egin dugu. Bost zuzendarik leiho bana zabaldu nahi genuen. Errealitate, pertsona, preso, bost historia kontatu. Hainbat eta

hainbat daude gure herri txiki honetan. Belaunaldietako bizitza izan den neurri berdinean izango da kontatu beharrekoa, belaunaldietarako lana. Guztion ase-min eta onarpenerako. Hainbat eta hain kolore diferentetakoak baitira... Guztiok gaude zerbait ikasi beharrean bestearengandik. Horregatik, eta guztiagatik, guk bagenekien ez ginela pelikula bat bakarrik egiten ari. Erosoagoa, ongi ikusiagoa, “zuzenagoa” delako zenbait historia kontatzea eta gureek horietatik, eta beste batzuetatik, gutxi zeukaten.

Eta pelikula bat egin nahi genuen eta egin dugu, neguan. Bakoitzak bere leihoa ireki eta hor barneratu da. Errealitatea, pertsona, preso... Ez da hibernazioa izan baina hortik ere pasatu gara. Erditzea udaberriaren amaieraren karietara izan da. Umea ederra da, benetan. Bueno, gurea izanda zer esango dugu. Uda garaia ezin hobea da txikia txikitxoaren denean oraindik. Eguraldiak laguntzen du kalera ateratzeko, bere lehen hilabeteak goxoan pasa ditzan. Baina badakigu denok ere ipar parte honetan eguraldia zein ankerra, eta “kapritxosoa” izan daiteken, uda bada ere.

Momentu batetik bestera, uda gozatzen hasi berritan, hor ilundu da zerua itsaso



DANI BLANCO

aldetik. Izaturik begiratu dugu ez dakigulako nola gertatu den. Zeru urdina zena bat-batean beltzuta azaldu da. Gure begien ñiñietan tximistaren ziztadak marratu dira... Ez. Benetako tximistak dira hodei beltzak zuritzen. Ekaitza dator. Ez gara harritu ere. Ekaitzak horrela ematen dira eta uda sasoi honetan errazago.

Babesa bilatu dugu gertuen zegoen txiringitoan. Eta eman digute. Jendea eskuzabala da, are gehiago egoerak larriak direnean, eta jaiotze berri bat tartean badago zer esango dizuet. Ez dakit umerik duzuen baina ez baduzue jakizue horrela dela.

Hala ere, udako ekaitzekin gertatzen dena ezaguna zaigu. Beste kontu bat litzateke aldaketa klimatikoarekin zerikusia izango balu, ez. Baina udako ekaitzen prozesua jakina da... Horregatik, orain trumoiaren zarataren zain gaude. Zenbat eta beranduago entzun badakizue ekaitza urrunago dagoela. Zain gaude. Oraindik ez da ezer entzuten. Bestela ere, ekaitzaren prozesua betikoa da. Tximista, trumioia, euri jasa eta ondoren barealdia. Eta gainera, herri honetan, eguraldia dela eta ez dela, ez gara etxean geratzen direnetakoak. Momentu honetan inportantea txikia ez bustitzea da. Eta busti behar badu euriak harrapatzen gaituelako ahalik eta gutxien izan dadila. ■

Orain trumoiaren zarataren

zain gaude. Zenbat eta

beranduago entzun

badakizue ekaitza

urrunago dagoela.

Zain gaude



Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, gozatu euskaraz.

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia